

Nafarroako Esaera Zaharrak. Aurizberri.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:
Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.
Bertsio informatiko honen egilea:
Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Aurizberri.

- 2250 *Abenduko elurra, gazta zarraren pare.*
Gazta zarrak aiña irauten.
- 2251 *Aizia negu.*
- 2252 *Astoak bere burua len.*
Zentzu gutxikoak bere buruari baizik ez begiratzen, guzien aurretik bera nai.
- 2253 *Denak presa, baño asti izaki.*
- 2254 *Goratasunak estaltzen du zabaltasuna.*
- 2256 *Ilunagarrian, yende aunitz iturrian.*
Ala zen garai batean.
- 2257 *Il urren dago.*
Ez il bai il dago, iltzeko zorian.
- 2260 *Nai, ta izan.*
Diru-zale izan, eta naikoa eskuratu.
- 2262 *Soñuak erakusten ziren (zidan) nola dantza.*
Dirua nola izan, ala erosi al.
- 2263 *Zer klaska duen!*
Zein esakera garbia duen.
- 2265 *Duda mundi, Martizeneko*
Txardin buru-gorri, Erkaineko
Esne guti ta erreto anitz, Enekoneko
Supazter zikin, Ostatu-zarreko
Ttittili ttattala, Antoneko
Beti putz-putz, Montaneko
Doblou urdindu, Alkazarneko
Mutur aundi, Erreseneko
Leioak iratze, Buruxeneko
Beti arrika, Botaxkoneko
Sandu aundi, Gixeneko
Ebanjelista aundi, Alonsoneko
Kerrena txotxez, Kalistoneko
Talo Matiz ...

Aurizperri-ko etxeak. Gure erri askotan bezela, Aurizperri-n etxe bakoitzekoari ezartzen diote esaeratxo bana. Ona emen etxe-multxo batenak.